

II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

OIONGO UDALA

Onestea mozioak izapidetzeko irizpideak

Bo190712F Oiongo Udalbatzak irizpide hauek onetsi ditu mozioak izapidetzeko:

I. Mozioak, beranduenik, aurreko hileko azken asteazkenean aurkeztu behar dira, ohiko osoko bilkuraren gai zerrendan sartzeko.

II. Mozioa aurkezten duen pertsonak edo taldearen bozeramaileak beste bozeramaileei ere bidali egingo die.

III. Zinegotziek eta talde politikoek baino ez dute eskubidea, bilkuran, mozioak eta proposamenak aurkezteko, irizpenen gaineko boto partikularrak edo zuzenketak defenditzeko eta eske-galderak formulatzeko.

IV. Mozioak, ohiko osoko bilkuraren aurretik informazio batzordeen ohiko bilkuretan landuko dira, ahal dela adosteko. Horrela, mozioak negoziatu, zuzendu eta adosten saiatzeko epea ez da astebete baino laburragoa izango.

Oion, 2019ko uztailaren 12a

Alkatea

EDUARDO TERROBA